

1998ko APIRILAREN 16ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamezortziko apirilaren hamaseiean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Ibarburen Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziak ez dira agertu, nahiz eta jakinean egon, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- REPSOL

REPSOL-BUTANO S.A.k, Lizartzako Udalerrian etxe eta merkataritza erabilerarako gas propanoa hornitzeko aurrera eman dituen pausoen arabera, Lizartzako Udalak eta Repsol-Butanoren artean sinatu beharreko kontratuaren proposamena luzatu dio Udal honi, eta literalki honela dio:

Lizartzan, 1998koan

BERTARATUAK

Batetik, **JOSE A. MINTEGI ARRATE Jauna**, 15.915.139 J zenbakidun NAN duena; bestetik, **EDUARDO F. MARTINEZ PEREZ Jauna**, 8.082.594 A zenbakidun NAN duena, Santander-en luzatua, 1996ko ekainaren 17an.

ESKU HARTU DUTE

JOSE A. MINTEGI ARRATE Jaunak, LIZARTZAKO UDAL TXIT ARGIAREN (IFK P-2005800 D) izenean eta ordeztuz, eta bertako Alkate Lehendakari gisa; eta **EDUARDO F. MARTINEZ PEREZ Jaunak, REPSOL**

BUTANO SAren (IFK A-28076420) izenean eta ordeaz, helbidea Arcipreste de Hita kalean duena, 10. zenbakian.

ADIERAZI DUTE

LEHENENGO.- **Udalak** interesa duela Lizartzako hirigunean- agindutako proiektuan mugatua datorrena, eta gaur egun 153 etxebizitza eta merkataritza-gune dituena- kanalizatutako propanozko gasaren banaketarako instalazio bat jartzeko, energia-hornidurarako eta etxe-, merkataritza- eta industri erabilerarako.

BIGARREN.- **Udalak** interesa duela, era berean, gasa bere eskumeneko lokal eta bulegoetan (udal-bulegoak, ikastolak kiroldegia ...) erabiltzeko, bai eta udalerrira osoan ere; eta, horretarako, promozio edo eraikuntza berrietan azpiegitura sar dadin gomendatuko du, hornidura egokirako.

HIRUGARREN.- **Repsol Butano SAk** interesa duela kanalizatutako gasaren hornidurarako beharrezko diren instalazio guztien esplotazioa egiteko etxebizitza eta merkataritza- eta industri gune guztietan, adierazitako erabilerarako eta horien titulartasuna lortzearen bitartez (biltegi-zerbitzu-zentroa, banaketa-sareak hartune- edo itxiera-balbuletaraino, abonatuaren kontadore indibidualak zentralizatuta dauden lokal teknikoak edo armairutik gertuen eta aurretik daudenak). Instalazio horiek funtsean **1. ERANSKINEAN** adierazitako elementuak izango dituzte.

LAUGARREN.- Bi alderdiek, esku hartzen duteneko izaeraren arabera, elkarri nahikoa ahalmen dutela aitortzen diotenez, dokumentu hau hitzartzen dutela, irizpide ekonomikoak finkatu ahal izateko beharrezko instalazioa aurrera eraman dadin; eta, hain zuzen ere, kanalizazio bidez etxebizitza eta merkataritza- eta industri guneak propanozko gasez hornitu daitezela, honako itunen arabera:

ITUNAK

LEHENENGO.- **Repsol Butano SAK** gas-horniduraren zerbitzua prestatzeko obligazioa hartuko du, Administrazio Emakidan ezarritako baldintzetan (Eusko Jaurlaritzako Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak emandakoa, 1997ko maiatzaren 6ko ebazpenaren arabera).

BIGARREN.- **Repsol Butano SAK Udalari** gasa instalatzen duten enpresa eta instalatzaile baimenduen zerrenda eskaini zion. **Udalak** 98-04-16an burututako Osoko Bilkuran enpresa instalatzaile horietako bat aukeratzea erabaki zuen; horrela, Garra Proyectos SL enpresa izango da, **1. ERANSKINEAN** jasotzen diren gasifikazio-lanak egikaritzeko dituenak.

Aurretik eta ondoren datorrenean, instalazioak honako hau barne hartzen duela ulertuko da: biltegiatze-zentroa eta banaketa-sareak hartune, edo itxiera-balbuletaraino, abonatuaren kontadore indibidualak zentralizatuta dauden lokal teknikitik edo armairutik gertuen eta aurretik daudenak. Aipatu kontadoreak guzuzen eta hurbilerrazean kokatuko dira.

HIRUGARREN.- Proiektuaren onespina eta materialen eta eraikuntza-moduaren onarpena **Repsol Butano SA**ri egokituko zaio; proiektua, halaber, **Repsol Butano SAK** horretarako ezarritako irizpide teknikoekin burutuko da, eta gai horretan nazioarteko prestigio ezaguna duten nazional eta atzerriko arauak jarraiki.

LAUGARREN.- Instalazioaren obra mekanikoa egikaritzeko kontratatutako enpresak eta **Udalak** beren Obra Zuzendaritza izateko kaltetan gabe, **Repsol Butano SAK** obraren berrazterketa egingo du, eta ez da aipatu obraren zati baten lurperatzerik onartuko **Repsol Butano SA**ren onspen espresurik gabe.

BOSGARREN.- Bai instalazio obra zibilaren eta mekanikoaren egikaritzapena, eta bai berau abian jartzeko egungo arautegiak exijitzen dituen probak, egiaztapenak eta saiakuntzak GARRA PROYECTOS, SL enpresaren erantzukizun izango dira.

SEIGARREN.- **Udalak**, kanalizatutako Gas-hornidura Zerbitzuaren esleipendun izateko bere lehen eskubideari uko eginez -Administrazio Emakidatik ondorioztutako hirugarrenaren mesedetan, eta hori guztia 97-02-26ko Osoko Bilkurak hartutako Erabakiaren arabera-, bere gain hartzen du bere eskumenetik ondorioztutako guztia betetzeko eta betearazteko erantzukizuna, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriaz. Zentzu honetan, GARRA PROYECTOS, SL enpresari alderdi biko Akordioa proposatu dio - **II. ERANSKINEAN** datorrena-, eta, bertan, enpresa horrekin **Repsol Butano, SA.k** exijitu ditzakeen eta dokumentu honetatik eratorritako konpromiso ororen subrogazioa adostu du, bai eta gas-horniduraren airetiko instalazioen edo instalazio muntagarrien egikaritzapena ere, hartune-balbulen bitartez eta etxebizitza edo merkataritza- eta industri guneen kanpoalderaino.

ZAZPIGARREN.- **Udalak** erabiltzaileak -bai etxetakoak bai denda eta industrietakoak- erakartzen lagunduko du, eta gasaren erabileran parte hartuko du, bere eskumeneko lokal eta bulegoetan. Era berean, Biltegiratze Zentro bat eta Banaketa Sare bat egingo du -gutxienez 153 etxebizitza hornitzeko edukiera duena-, eta, gainera, konpromisoa hartuko du gutxienez 75 instalazio indibidual egiteko, etxebizitzak izan edo merkataritza- eta industri guneak izan; horretarako, eraikin horiek legalizatuak eta kontsumo-baldintzetan beharko dute egon 18 hilabeteko epean, eta bi alderdiek, obren hasiera ofizial gisa, adostasunez erabakitzen duten egunetik kontaktzen hasita.

ZORTZIGARREN.- Biltegiratze-zentroak bere barnean hartzen ditu GLPko deposituen eta trasbase, lurrinketa eta erregulazio ekipoen

instalazioa. Udal-titulartasunekoak diren lurretan kokatuko da, ur eta elektrizitate-hartunea dituen eta zisterna-kamioientzat sarbide egokia duen partzela gainean.

Biltegiratze-zentroa kokatuko deneko lurrak **III. ERANSKINEAN** deskribatzen direnak dira, eta bertan erabakitzen denez, **Udalak** lur horien lagapena eta okupazioa **Repsol Butano SA**.ren alde egingo du. Lagapen hori musutruk izango da, **Udalak** proiektuari egindako ekarpen gisa.

Udalak adierazi du **III. ERANSKINEAN** deskribatutako lur horiek hirigintza-kalifikazio egokia dutela biltegiratze-zentroa kokatzeko; eta, aldez aurretik beharrezkoak diren administrazio-iharduketak egin eta gero, aipatu lurrak egokiak izango dira dagozkion udal-baimenak emateko.

BEDERATZIGARREN.- **Repsol Butano SA.k** obrari **I. ERANSKINAREN 1.1. atalean** definitutako ekipoak emango dizkio, eta, Lizartzako Udalerriaren gasifikazio kanalizatuari begira, **HAMABOST MILIOI (15.000.000) PEZETA** bideratu ditu, hitzartutakoari jarraiki.

15 MILIOI (15.000.000) PEZETAKO zenbateko bakarra eta itxia **Repsol Butano SA.k** GARRA PROYECTOS, SL enpresari ordainduko dio, **I. ERANSKINEAN** deskribatutako obren egikari-tzaile gisa eta honako prestazioen arabera:

* %70 izendun-taloi bidez, kontzeptuen fakturazio-dataren edo burututako sare-zatien ondorengo hirurogei (60) egunetan, funtzionamendurako prest daudenak eta **Repsol Butano SA.K** hautatutako Enicre edo

Injinerutzak emandako egiaztagirien bidez babestuak. Udalaren oniritzia ere beharko da.

* Gainerako %30 arestian hitzartutako sistema bidez ordainduko da, Udalaren oniritziaren beharrik gabe eta Garra Proyectos, SAK **Repsol Butano SA.ri** emandako eta formalizatutako abonatuaren poliza-kopuruaren arabera.

HAMARGARREN.- **Udalak** Dokumentu hau behin betiko onetsi dezan, aurretik Udalbatzak erabaki beharko du onartzen duen ala ez; era berean, **Repsol Butano SA.k** Zuzendaritzaren edo Administrazio Kontseiluaren onarpena jaso beharko du. Bi alderdiek adostasun hori ahalik eta lasterren izapidetuko dute.

Eta ados daudela erakusteko, dokumentu hau hiru aletan izenpetzen dute, ondorio bakarerrako, idazpuruari datorren tokian eta egunean.

I. ERANSKINA

1. Obra Mekanikoa

1.1.- Biltegi-zerbitzu-Zentroa

- Depositatuak: 2. Edukiera: 18.800 l.u/b edo antzeko zerbitzu.

1.2.- Banaketa-sarea hartune-giltzetaraino, gehitu-tako planoaren arabera.

2. Obra Zibila

ERANSKIN honetako 1.1 eta 1.2 puntuetan deskribatutako obra mekanikoari dagokiona.

3. Egikaritzapen-Proiektua

4. "AS BUILT" Planoak eta Obra-Zuzendaritza

Lizartzan, 1998koan.

BERTARATUAK

Batetik, **JOSE A. MINTEGI ARRATE Jauna**, 15.915.139 J zenbakidun NAN duena; bestetik, **LUIS GARITANO ALBERDI Jauna**, 72.411.254-D zenbakidun NAN duena.

ESKU HARTU DUTE

JOSE A. MINTEGI ARRATE Jaunak, **LIZARTZAKO UDAL TXIT ARGIAREN** (IFK P-2005800-D) izenean eta ordez, eta bertako Alkate-Lehendakari gisa; eta **LUIS GARITANO ALBERDI Jaunak**, **GARRA PROYECTOS, SL** enpresaren (IFK B-20.543.278) izenean eta ordez, helbidea ANTZUOLAn (Gipuzkoa) duena, Ondarre Kalearen 11. zenbakian.

ADIERAZI DUTE

LEHENENGO.- 1998ko Maiatzaren 6ko datan, **Udalak Repsol Butano SA.rekin** PNU Hitzarmen-eredua izenpetu zuela, Hitzarmenaren arabera; bertan, irizpide ekonomikoak finkatuak geratzen ziren beharrezko instalazioa egikaritzeko, kanalizazio bidez hornitutako propanozko gasa Udalerriko etxebizitzetan eta merkataritza eta industri gunetan jarri zedin.

BIGARREN.- Bi alderdiek, esku hartzen duteneko izaeraren arabera, elkarri nahikoa ahalmen dutela aitortzen diotenez, dokumentu hau hitzartu dute irizpide ekonomikoak eta beste finkatzeko, **I. ERANSKINEAN** jasotzen diren gasifikazio-obren egikaritzapena zehaztuko dutenak; honako itunen arabera, hain zuzen:

ITUNAK

LEHENENGO.- **GARRA PROYECTOS, SL** enpresak bere egiten du obrak egikaritzeko erantzukizuna, hemen hitzartu-takoaren arabera.

Aurretik eta ondoren datorrenean, instalazioak honako hau barne hartzen duela ulertuko da: biltegiatze-zentroa eta banaketa-sareak hartune- edo itxiera-balbuletaraino, abonatuaren kontadore indibidualak zentralizatuta dauden lokal teknikoak edo armairutik gertuen eta aurretik daudenak (aipatu kontadoreak gune komun eta hurbilerrazean kokatuko dira), eta gas-horniduraren airetiko instalazioen edo instalazio muntagarrien egikaritzapena, hartune-balbula horien bitartez eta etxebizitza edo merkataritza-eta industri guneen kanpoalderaino. Lan horien ordainketa arautua dago lehenengo azalpenean aipatzen den **Udalaren eta Repsol Butano SA.ren** arteko hitzarmenean.

BIGARREN.- Egikaritzapen Materialeko Proiektuaren onarpena **Udalari** eta **Repsol Butano SA.ri** dagokie, bai eta materialen eta eraikuntza-moduaren onespina ere.

HIRUGARREN.- **GARRA PROYECTOS, SL** enpresak nahitanahiez bere Obra Zuzendaritza izateko kaltetan gabe, **Udalak** eta **Repsol Butano SA.k** egingo dute obraren berrazterketa, eta ez da onartuko sarearen zati bat lurperatzea, **Repsol Butano SA.ren** baimen espresurik gabe.

LAUGARREN.- **GARRA PROYECTOS, SL** enpresa egikaritzapena egiteko behar dituen langileak behin-behinekoz kontratatzen saiatuko da, eta izan ditzakeen beste eskaintza batzuen baldintza berdinetan; langileak INEMen lana bilatzeko izena emanda duten Lizartzako herritarrak izango dira, egon baleude.

BOSGARREN.- **Udalak** aktiboki egingo du lan erabiltzaileak -etxeetakoak edo dendetakoak- erakartzeko; gainera parte hartuko du gasaren

erabileran bere eskumeneko lokal eta bulegoetan. Bestalde, GARRA PROYECTOS, SL enpresa gas-instalazioen legalizazioaz arduratuko da -beharrezkoak direnak gutxienez 153 etxebizitza eta merkataritza- eta industri gune hornitzeko-, eta konpromisoa hartu du gutxienez 75 instalazio indibidual egiteko; instalazio horiek **Repsol Butano SA.ri** emango dizkio, zerbitzatzeko prest eta **18 hilabeteko** epean, bi alderdiek obren hasiera ofizial gisa adostasunez erabakitzen duten egunetik hasita.

SEIGARREN.- **GARRA PROYECTOS, SL** enpresa **Udalarekin** hitzartutako zenbatekoa erabiltzaile guztiei -etxeokak eta denda eta industriakoak- kobratzeaz arduratuko da, sarearen bidez egindako hornidura-hartune bakoitzagatik eta dagokion Kontratua horietako bakoitzarekin formalizatu eta gero, hitzartutako baldintzetan.

GARRA PROYECTOS, SL enpresak igoera indibidual bakoitzagatik 110.000 + BEZ pezetako zenbateko bakarra eta itxia jasoko du, eta, era berean, "Ordainketa Polizen" betearazpenaz arduratuko da, **Repsol Butano SA.ren** alde.

ZAZPIGARREN.- **Udalak** dokumentu hau onartu dezan, aurretik Udaltzatzen onartu beharko du.

Eta ados daudela erakusteko, dokumentu hau hiru aletan izenpetzen dute, ondorio bakarrerako, idazpuruan datorren tokian eta egunean.

Bi proposamenak aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartzea erabaki da.

Guzti hori bideratu ahal izateko, onartu da, Alkate-Lehendakaria den Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunari ahalmenak ematea hitzarmen hoiek sinatzeko, eta beraiek guztiz eraginkorrak izan daitezen, behar adinako administrazio-dokumentuak eta dokumentu pribatuak izenpetzeko.

3.- LAB-ELAren MOZIOA

Alkateak, lanaldia murrizteko helburuarekin, LAB-ELA sindikatuek aurkeztutako mozioaren berri eman du, eta honela dio:

Euskal Herrian oro har eta gure udalerrian bizi dugun langabezia, bazterketa eta kanporatze soziala oso larriak dira. Iharduera tasa txikia, enplegu tasa are murriztagoa eta gazte jende nahiz emakumeengan eragin bereziki latza duten enplegu baldintza txarrak ikusirik, gizarte arazo horiek konpontzeko bidean jartzeko erabakiak hartu behar dira lehenbaitlehen.

Erabaki horiek are premia handiagoz hartu behar dira beste datu bat izanik: lanik gabe daduen 213.000 lagunetatik soilik 30.909k (hots %14,5ak) jasotzen dute INEMengandik langabezi babes kontributiboa, iraupen mugatua duena.

Hori dela eta, honako mozio hau onartzea proposatzen diogu Lizartzako Udalbatzari:

- 1.- Udalbatza hau bat dator lanaldia murrizteko helburuarekin, gehienez sektore pribatuan asteko 35 ordukoa eta sektore publikoan 32 ordukoa izan dadin. Aldi berean, lanaldi-murrizketak lanpostu berriak sortzeko bidea izan behar du. Horregatik, Udal honek gizarte-eragileei eta administrazioei neurri horiek aplikatu ditzatela eskatzen die.
- 2.- Lanik ez eta/edo diru-sarrera eskasak dituztenentzat oinarritzeko errenta bat ezartzea eskatzen dugu, Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren pareko izango zena.
- 3.- Euskal Autonomi Erkidegoko Legebiltzarrari erabaki horiek har ditzan galdegiten diogu, eta beharrezko dena egin dezala helburu horietara iristeko legegintza eskumenak lortzearren.

Lab-Ela Sindikatuek aurkeztutako mozioa aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

4.- UEMAren MOZIOA

Ima Zubeldia, UEMAko arduraduna den zinegotziak, Tolosako Epai-Barrutian epaile euskadunarik ez egoteari buruzko mozioa aurkeztu du, eta honela dio:

Jakina da azken urte hauetan Tolosako epai-barrutian egin diren epaiketetan euskararen presentzia areagotu egin dela, bere lana euskeraz burutzeko gai den epaile baten presentziak bideragarri egin duelako. Horren lekuko garbia da hartu diren deklarazioetatik %65 inguru euskeraz egin izana.

Orain dela egun gutxi, epaile euskaldunaren kargu aldaketa dela eta, euskeraz ez dakien epaile baten izendapenaren berri izan dugu, José Hoya Corominas jaunarena alegia.

Izendapen honek euskaldungoaren orain arteko eskubideak ukatzeaz gain, Espainiako Konstituzioak berak 3.2 artikuluan jasotakoa ("Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus estatutos") zalantzan jartzen du eta 1982ko Euskararen Erabilera Arauzkutzeko Legeak jasotzen dituen eskubideak bertan behera uzten ditu, honek dakarren lege haustearekin.

5.2. art.- a) Ardularitzaren eta Autonomia Elkartean kokaturiko edozein Ihardutze-Sail edo erakun-derekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskeraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea".

9.1. art.- "Epailaritzarekiko harremanetan, herritar guztiek aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela".

Aipatutako eskubideen bermea ezinbestekoa da, Tolosako epai-barrutiak bere baitan hartzen dituen Tolosaldeko eta Goiherriko herri gehienak herri euskaldunak direla kontuan izanik.

Beraz, epaile ez euskalduna izendatzeko erabakia justiziaren aurkakoa, antidemokratikoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela iruditzen zaigu.

Hau guztia aintzat harturik, Osoko Udal Batza honi, ondorengo erabakia onartzeko eskatzen zaio:

- 1.- Udalerrriaren ordezkari gisa kezka eta haserrea adieraztea, azken urteetan epaiketak erabat euskaraz gauzatzeko herritarrok izan dugun eskubidearen bermea ukatzen zaigulako.
- 2.- Orain arteko epaile euskaldunaren ordezkoak euskaraz ez dakienez gero, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari (CGPJ) behar diren neurriak har ditzala eskatzea, galtzeko zorian ditugun eskubideak berma ditzan.
- 3.- Hemendik aurrera gerta daitezkeen kargu aldaketen ondorioz Tolosako auzitegira etorriko diren epaile berriek beren lana bi hizkuntzetan burutzeko gaitasuna izan dezatela eskatzea.
- 4.- Osoko Udal Batza honen erabaki hau Justizia Sailburuari eta Autonomia Erkidegoko Epaitegi Nagusiari igortzea berehalako parte hartzea eskatuz.

UEMA Mankomunitateak aurkeztu duen mozio aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez, onartzea erabaki da.

5.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Inaxio Altuna Arruabarrena Jaunari, Joangi baserrian sukaldea berritzeko baimena eman zaio.

Tere Zinkunegi Agirre Andreari, bere etxeko sukaldeko azulejoak eta baldosa aldatzeko baimena eman zaio.

Asintxio Eizagirre Treku Jaunari, Goiz Argi, 2. esk.an bainugela eraberritzeko baimena eman zaio.

PLAZA-SORO KOOPERATIBAREN ESKAERA

IKUSIRIK, Jose Maria Sarasola Etxeberria Jaunak idatzia aurkeztua duela Udal honetan, PLAZA SORO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN KOOPERATIBAREN ordeztu eta izenean, aipatu sozietateak 1997ko apirilaren 23an gordailatutako abala (25.000.000 pezeta) itzuli dadin eskatu duela, edo, hala badagokio, partzialki kitatu dadin, 10.000.000 pezetako beste abal baten ordezkapenaren bidez.

IKUSIRIK, PLAZA SORO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN KOOPERATIBAK eginiko eskaerari buruz, Udaleko Teknikariak luzatu duen txostena.

KONTUTAN HARTUAZ, eta txosten horretan justifikatzen denez, egoera ikusirik, desoreka bat eman zitekeen, berme horiek exijitzeari ekin zitzaion unean bermatu nahi zen xedearen eta gaurko unearen artean, non eraikinak oso aurreratuta dauden.

KONTUTAN HARTUAZ, horrek ezin gaitzakeela eraman eskatzaileek adierazitako asmoetara, exijitutako bermeak gaur egun zentzurik edo xederik izango ez luketela diotenean; izan ere, egia delako, bestalde, ziurtatu nahi diren obrak amaitu gabe daudela, eta administrazio hau ez dagoela une honetan obren egikaritzapen zuzena edo okerra egiaztatzeke egoeran.

Guzti horregatik, EBATZI DUT:

Gaur egun gordailatutako 25.000.000 pezetako abala itzuli eta bere ordeztu, 10.000.000 pezetako abala aurkezteko eskatzea.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du,